


DODO-JOKOA



Dena galdua zela uste zenutenean, dei bat jaso duzue ezustean: dodoak bizi dira. Espedizio batean abiatu behar zarete Mexikoko Guadalupe uhartera, desagertuta zegoela sinetsarazi zizueten espeziea Euskal Herrira ekartzeko bueltan.

Marinel bakoitzak jar dezala bere fitxa hasierako laukian; bota dadoa, eta zenbakirik handiena ateratzen duena hasiko da. Dodoa duen laukiren batera eroriz gero, gogoratu: *dodotik dodora, neu berrin jokora!* Horiez gain, honako lauki hauek eragingo dute gorabeheraren bat bidaia transatlantikoan:

6. Itsasoa lagun duzu. Korronteaz balia zaitez, eta zoaz 12. laukira. **12.** Itsasoa zakar dago. Korronteak atzera zaramatza 6. laukira. **19.** Ontziko iparrorratza matxuratuta dago, eta noraezean zoaz ozeanoaren erdian. Txanda bat galduko duzu. **26.** Haizea poparean duzu! Txanda bat irabazi duzu: bota berriz dadoak. **31.** Mundu mailako pandemia batek egoera nahasi du; ezin duzu nazioarteko uretatik mugitu aldi batean. Bi txanda galduko dituzu. **42.** Itsasoa zuregana doa zurrunbiloan. Aurrera egiteko, lauki honetara erortzeko ateratu duzun zenbaki bera lortu beharko duzu hurrengo txandetako botaldietan. **52.** Kostazainek atzeman zaituzte, eta kostako zaizu aurrera jarraitzea. Lauki horretan geratu beharko duzu beste jokalaria batek ordezkatzeko zaituen arte. **53.** Zauden lekutik dodoak ikus daitezke urrunean. Txanda bat irabazi duzu: bota berriz dadoak. **58.** Zureak egin du: itsasontzia hondoratu zaizu. Itzul zaitez hasierako laukira. **63.** Azkenean bai! Parean duzu dodoa, euskaldunen behinolako ikurra, burujabetzaren azken lekuko mokoduna. Ez da horren erraza harrapatzen, baina: laukira erortzeko zenbaki zehatza ateratu beharko duzu; bestela, atzera-aurrera ibili beharko zara ordura arte.

Lortu duzu! Iritsi zara amaierara, ezer bukatu ez zen lekura. Giro tropikalak gogoia baretu dizu, eta soseguz begiratu diozu bipedoaren hegaldi baldarrari. Konturatzerako, zu ere urruntzen hasia zara aldean zeneramatzan kaiola herdoilduetatik. Hutsaren hurrengo zoriona da. Ezinezko bidaian itsasoratzerara bultzatu zaituen ilusio berak gidatuko zaitu etxera.